

OTA ORD 6/2026

**MUGIKORTASUNEKO, GARRAIO
JASANGARRIKO ETA TURISMOKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN EBAZPENA**

2026ko abuztuaren 8tik abuztuaren 15era Pirata Aste Nagusia ospatuko da Donostiako portuan. Horregatik, Mugikortasuneko zuzendariaren 2026ko uztailaren 27ko txostenaren arabera, eta ekitaldi horrek inguruko egoiliarrei eragingo dien aparkalekuari dagokionez, portuko egoiliarren ibilgailuei, «Donostia Portua» aparkaleku-txartelarekin identifikatutakoei (erantsitako «2026ko portuko sarbidea» ereduaren arabera), eremu arautuan aparkatzeko baimena ematea proposatzen da, 2026ko abuztuaren 4tik 19ra bitartean, biak barne.

Horri dagokionez, adierazi behar da pertsona horiek beste sektoreko egoiliar baimenduen baldintza berberetan aparkatu ahal izango dutela, hau da:

- Doan aparkatu ahal izango dute erreserbatuta ez dauden plaza arautuetan eta beste sektorean bizi direnentzat erreserbatutakoetan.
- Ezin izango dute doan aparkatu merkataritzaguneetan (15 minutuko eremuak) erregulazio-ordutegiaren barruan.

Araubide juridikoari dagokionez, TAO ordenantzen xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera, zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, zinegotzi ordezkariak, salbuespen gisa, trafikoarekin eta aparkamenduarekin edo interes publikoko beste inguruabar batzuekin zerikusia duten arrazoiengatik salbuespenezko araubideei lotuta dauden aparkatzeko baimenen baldintzak alda ditzake.

Aurreikuspen honen helburua da baimena izan eta jaiengatik edo bestelako ekitaldiren batengatik aparkatzerik ez duten pertsonen beste nonbait aparkatzeko aukera ematea.

Eskatutako kasuan, aparkatzeko baimenari eragiten dioten herritarrak beste administrazio batek, Eusko Jaurlaritzak, emandako baimenaren titularrak dira.

Aipatutako xedapenak udalaren aparkaleku-baimenak aldatzeko aukera soilik ematen badu ere, kasu horretan ere portuko eremuan aparkatzeko

**RESOLUCIÓN DE LA CONCEJALA
DELEGADA DE MOVILIDAD,
TRANSPORTE SOSTENIBLE Y TURISMO**

Desde el 8 de agosto al 15 de agosto de 2026 se va a celebrar la Aste Nagusia Pirata en el puerto de San Sebastián. Por ello, según informe de la Directora de Movilidad de 27 de julio de 2026, y debido a la afección al estacionamiento que generará este evento a los residentes de la zona, se propone autorizar a los vehículos de las personas residentes del puerto identificados con la tarjeta de aparcamiento para residentes “Donostia Portua” (según modelo “acceso puerto 2026”, adjunto), poder estacionar libremente en la Zona Regulada, del 4 al 19 de agosto de 2026, ambos incluidos..

Al respecto, hay que señalar que estas personas podrán estacionar en las mismas condiciones que las personas residentes autorizadas del sector de destino, esto es:

- Podrán estacionar gratuitamente en las plazas reguladas no reservadas y en las reservadas para personas residentes del sector de destino.
- No podrán estacionar gratuitamente en las zonas comerciales (Zonas 15) dentro del horario de regulación.

En cuanto al régimen jurídico se refiere, la Disposición Adicional de la ordenanza OTA regula la posibilidad de que la Concejala Delegada, previo informe de los servicios técnicos, pueda excepcionalmente modificar las condiciones de estacionamiento de las autorizaciones de Aparcamiento sujetos a regímenes excepcionales por causas relacionadas con el tráfico y aparcamiento u otras circunstancias de interés público.

La finalidad de dicha previsión es que las personas que con motivo de eventos festivos etc. vean afectada su autorización de aparcamiento tengan una alternativa para aparcar.

En el caso solicitado, los ciudadanos que ven afectado su autorización de aparcamiento, son titulares de una autorización otorgada por otra administración, el Gobierno Vasco.

Si bien la disposición mencionada solo permite la modificación de autorizaciones de aparcamiento municipales, en este supuesto también concurre la

baimen baten titularrei aparkatzeko alternatiba bat eman behar zaie, administrazio eskuduna edozein dela ere.

Horregatik, baimena eman behar zaie portuan aparkatzeko baimenaren titularrei araututako eremu osoan aparkatzeko.

Nolanahi ere, beharrezko bitartekoak jarri beharko dira erabiltzaileak jakinaren gainean egon daitezzen.

Horrenbestez:

EBAZTEN DUT:

Bat.- Baimena ematea, 2026ko abuztuaren 4tik abuztuaren 19ra bitartean, biak barne, portuan bizi diren pertsonen ibilgailuak aparkatzeko, "2026ko porturako sarbidea" aparkatze-txartelarekin identifikatuta (erantsita doa), araututako eremu osoan aparkatzeko, baldintza hauetan:

- Doan, erreserbatuta ez dauden plaza arautuetan eta beste sektoreko egoiliarrentzat erreserbatutakoetan, beste sektoreko TAO baimenaren titularren baldintza berberetan.

- Merkataritza-guneei dagokienez (15 minutuko eremuak), ordainduta, erregulazio-ordutegiaren barruan. Honako kale hauetan daude kokatuta eremu horiek:

- 1-1 sektorea: Salamanka pasealekua

- 1-2 sektorea: Arrasate, Bergara, Hondarribia, Urbietta eta Zaragoza plaza.

- 2-1 sektorea: Galtzada Nagusia, Sekundino Esnaola eta Euskal Herria plaza.

- 2-3 sektorea: Ametzagaña, Egia, Iruresoro plaza, Karmengo Ama eta Mandasko Dukearen pasealekua.

- 4-1 sektorea: Matia, Ondarbide, Sukia.

necesidad de dar una alternativa de aparcamiento a los titulares de una autorización de aparcamiento en la zona portuaria, con independencia de cuál sea la administración competente.

Es por ello que procede autorizar a las personas titulares de autorización de aparcamiento en el puerto a estacionar en toda la zona regulada.

En cualquier caso, deberán arbitrarse los medios necesarios para el general conocimiento de las personas usuarias.

Por todo lo expuesto,

RESUELVO:

Uno.- Autorizar, desde el 4 agosto al 19 de agosto de 2026, ambos inclusive, a los vehículos de las personas residentes del puerto identificados con la tarjeta de aparcamiento "acceso puerto 2026" (se adjunta) a estacionar en toda la zona regulada, en las siguientes condiciones:

- Gratuitamente en las plazas reguladas no reservadas y en las reservadas para las personas residentes del sector de destino en las mismas condiciones que los personas titulares de la autorización OTA del sector de destino.

- De forma no gratuita en lo que se refiere a las zonas comerciales (Zonas 15), dentro del horario de regulación, que están radicadas en las siguientes calles:

- Sector 1-1: Pº Salamanca.

- Sector 1-2: Arrasate, Bergara, Hondarribia, Urbietta y Plaza Zaragoza.

- Sector 2-1: Gran Vía, Secundino Esnaola y Plaza Vasconia.

- Sector 2-3: Ametzagaña, Egia, Plaza Iruresoro, Virgen del Carmen y Pº Duque de Mandas.

- Sector 4-1: Matia, Ondarbide, Sukia.

- Sector 4-4: Plaza Bentaberri, Plaza Jose M.^a Sert, Carmelo Etxegarai y R. Maria de Azkue.

• 4-4 sektorea: Bentaberri plaza, Jose Maria Sert plaza, Karmelo Etxegarai eta R. Maria de Azkue.

• 4-7 sektorea: Balentegi, Errotaburu pasealekua, Orixe pasealekua eta Xabier Lizardi.

• 5-1 sektorea: Amezketarren kalea, Irun plaza, Isabel II.aren hiribidea, Javier Barkaiztegi, Katalina Erauso eta Podavines.

• 5-3 sektorea: Aralar Mendilerroa.

Aparkatzeko baimen honek ez du gaitzen Isuri Gutxiko Eremura (IGE) sartzeko.

IGEn kokatutako sektore batera sartzeko, ibilgailuak eremu horretara sartzeko ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta, hala badagokio, dagokion baimena edo erantzukizunpeko adierazpena lortu edo formulatu beharko da.

Bi.- Behar diren bitartekoak jartzea, erabiltzaileek neurriok ezagutu ditzaten. Horretarako, ebazpen hau udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Zu jakitun jartzeko eta legeko ondorioak izateko adierazi dizut, baita ohartarazi ere erabaki honek Administrazioaren bideari buru ematen dionez gero, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera HILABETEKO EPEAN berraztertze errekurtsoa aurkeztu dezakezula goian adierazitako organoaren aurrean edo zuzenean aurkatu Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Auzitegian BI HILABETEKO EPEAN.

Aipatutako epeak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira. .

• Sector 4-7: Balentegi, Pº Errotaburu, Pº Orixe y Xabier Lizardi.

• Sector 5-1: Los Amezketa, Plaza Irun, Av. Isabel II, Javier Barkaiztegi, Catalina Erauso y Podavines.

• Sector 5-3: Sierra de Aralar.

Esta autorización de estacionamiento no habilita para acceder a la Zona de Bajas Emisiones (ZBE).

Para acceder a un sector ubicado en la ZBE se deberán cumplir las condiciones establecidas para el acceso de vehículos a dicha zona y obtener o formular, en su caso, la correspondiente autorización o declaración responsable

Dos.- Arbitrar los medios necesarios para el general conocimiento por las personas usuarias de las medidas adoptadas mediante la publicación de la presente resolución en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal.

Lo que le comunico para su conocimiento y efectos, indicándole que contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer Recurso de Reposición ante el órgano arriba indicado en el plazo de UN MES o impugnarla directamente, en el plazo de DOS MESES, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián..

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de su publicación.

Donostian, sinadura egunean

Prozesuak kudeatzeko goi-mailako teknikaria	Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 6an emandako eskuordetzaz, zeina Batzarrak berak 2025eko urriaren 29an hartutako erabakiz aldatu baitzen Por delegación de la Junta de Gobierno Local de 6 de julio de 2023, modificada por acuerdo de la misma Junta de fecha 29 de octubre de 2025
Igor Rodríguez Portuburu	Mugikortasuneko, Garraio Jasangarriko eta Turismoko zinegotzi ordezkaria Olatz Yarza Garagorri

Portuan bizi diren pertsonentzako aparkaleku-txartelaren eredua, Donostia Portuak 2026rako emana/
Modelo de Tarjeta de aparcamiento para personas residentes del puerto expedida por Donostia Portua para el año 2026:



Merkataritza-erabilerarako eremuen zerrenda eguneratua / Listado actualizado de zonas comerciales:

<i>Aparkaleku Sektorea Sector Aparcamiento</i>	<i>Kalea Calle</i>	<i>Tartea Tramo</i>	<i>Correcciones Zuzenketak</i>
1-1	SALAMANCA PASEALEKUA/SALA MANCA,PS DE	IBAIA/RÍO	
1-2	ARRASATE	EASO – BLAS LEZO/EASO – BLAS DE LEZO	
1-2	BERGARA		
1-2	HONDARRIBIA		
1-2	URBIETA		
1-2	ZARAGOZA PLAZA/ZARAGOZA,P Z DE	BLAS LEZO – MANTEROLA/BLAS DE LEZO - MANTEROLA	
2-1	GALTZARA NAGUSIA/GRAN VIA	MIRAKRUZ – ZURRIOLA HIRIBIDEA/MIRACRUZ – ZURRIOLA,AV DE	
2-1	SECUNDINO ESNAOLA		

2-1	EUSKAL HERRIA PLAZA/VASCONIA,P Z DE		
2-3	AMETZAGAÑA	EGIA – IRURESORO PLAZA/EGIA – IRURESORO,PZ DE	
2-3	EGIA	1 ZKTIK 36 ZKRA/Nº A Nº36	
2-3	IRURESORO PLAZA/IRURESORO, PZ DE	KARMENGO ANDRE MARIA – AMETZAGAÑA/VIRGEN DEL CARMEN - AMETZAGAÑA	
2-3	KARMENGO ANDRE MARIA/VIRGEN DEL CARMEN	EGIA – IRURESORO PLAZA/EGIA – IRURESORO,PZ DE	
2-3	MANDASKO DUKEAREN PASEALEKUA/DUQU E DE MANDAS,PS	ALDAKOENEA – EGIA (ATARIAK/PORTALES)	
4-1	MATIA		
4-1	ONDARBIDE		
4-1	SUKIA		
4-4	BENTA BERRI PLAZA/BENTA BERRI,PZ	ATARIAK/PORTALES	
4-4	JOSE Mª SERT PLAZA/JOSE Mª SERT,PZ DE	PLAZA	
4-4	KARMELO ETXEGARAI/CARME LO ETXEGARAI	BAKOITIAK/IMPARES	
4-4	RESURRECCIÓN MARIA DE AZKUE	MANUEL LEKUONA – XALBADOR BERTSOLARI	
4-4	RESURRECCIÓN MARIA DE AZKUE	BAKOITIAK/IMPARES – ANTONIO ARZAK – MANUEL LEKUONA	
4-7	BALENTEGI	XABIER LIZARDI – ORIXE PASEALEKUA/XABIER LIZARDI - ORIXE,PS DE	
4-7	ERROTABURU PASEALEKUA/ERRO TABURU,PS DE	XABIER LIZARDI – ORIXE PASEALEKUA/XABIER LIZARDI – ORIXE,PS DE	

4-7	ORIXE PASEALEKUA/ORIXE ,PS	BAKOITIAK - BALENTEGI – ERROTABURU PASEALEKUA/IMPARES - BALENTEGI – ERROTABURU,PS DE	
4-7	XABIER LIZARDI	BALENTEGI – ERROTABURU PASEALEKUA/BALENTEGI – ERROTABURU,PS DE	
5-1	AMEZKETARREN KALEA/AMEZKETA, CL DE LOS	BAKOITIAK – ERRONDO PASEALEKUA – JOSE M. SALABERRIA/IMPARES – ERRONDO,PS DE – JOSE M. SALABERRIA	
5-1	IRUN PLAZA/IRUN,PZ DE		
5-1	ISABEL II.AREN HIRIBIDEA/ISABEL II,AV DE	ATARIAK/PORTALES	
5-1	JAVIER BARKAIZTEGI	BIKOITIAK – ERRONDO PASEALEKUA – JOSE M. SALABERRIA/PARES – ERRONDO,PS DE – JOSE M. SALABERRIA	
5-1	KATALINA ERAUSO/CATALINA DE ERAUSO	BIKOITIAK – ERRONDO PASEALEKUA – JOSE M. SALABERRIA/PARES – ERRONDO,PS DE – JOSE M. SALABERRIA	
5-1	PODAVINES	BIKOITIAK/PARES	
5-3	ARALAR MENDILERROA/SIER RA DE ARALAR	IGELTEGI - PLAZABURU	